

## **EH Bildu talde politikoa**

### **Grupo político EH Bildu**

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - [www.donostia.ehbildu.eus](http://www.donostia.ehbildu.eus) -  
20003 Donostia

## **HIRIKO ERAGILE ZEIN ELKARTEEI GUNE PUBLIKOA ERABILTZEAGATIK EZARRITAKO FIDANTZA EKONOMIKOARI BURUZKO KONTROL MOZIOA**

Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2022ko maiatzaren 16an Gune Publikoen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

### **JUSTIFIKAZIOA**

Maiatzaren 4an Egia Bizirik auzo elkarteak jakinarazi zigun auzoan urtero egiten duen udaberriko jaia antolatzeagatik Udal Gobernuak 600 euroko fidantza eskatu ziola. Fidantza hori ordaindu ezean edo abalen bat aurkeztu ezean, Udal Gobernuak ez zien baimenik emango jaialdia antolatzeko. Orain arte ez diete horrelakorik inoiz eskatu, eta auzotarrek harriduraz jaso zuten jakinarazpena.

Udal Jabari Publikoa erabiltzeari eta ustiapen bereziari dagozkion tasak arautzeko zerga Ordenantza begiratuta, 12. artikulua honako hau dio: *Udalak arauzko tasak ordaintzeko ez ezik, eginbeharrak beteko direla bermatzeko fidantzen gordailua aurretik egitea ere eska dezake*. Udalaren web orrialdean honako hau ere agertzen da: *Fidantza kasu jakin batzuetan soilik (beharrezkoa denean eskatu egingo da)*. Hau da, fidantza eskatzeko aukera adierazten da, baina oso arbitrarioki, ez baita zehazten zeintzuk diren baldintzak eta ezaugarriak diru hori eskatzeko.

Esan beharrik ez dago, gaur egun, eragile eta elkarten egoera ekonomikoa oso konplikatua dela (gogoan izan diru-laguntzetan murrizketak izan dituztela) eta, osasun pandemiaren ondoren, nahiko lan dutela haien jarduerari berriro ekiten. Uste dugu Udalaren eginkizunak elkarte hauei laguntzea izan beharko lukeela eta ez haien jarduna oztopatzea.

Hori dela eta, maiatzeko batzordeetan delegatua interpelatu dugu eta honek adierazi digu eragile zein elkarteei eskatutako fidantza, kalean zerbait hondatu edo zikinduz gero, haiek konpondu edo garbitzeko dela, eta irizpide batzuen arabera, 600 eurokoa edo 200 eurokoa izan daitekeela.

Alde batetik, informazio hau eskuragarri egon behar dela uste dugu eta irizpideak argitaratuta egon behar direla web orrialdean. Bestetik, ez dugu ulertzen fidantza bera espazio publikoaren garbiketarekin lotzea, gero elkarteari bueltatu beharreko dirua delako, eta dirurik ez duten agenteen parte hartzea zein gube publikoaren erabilera mugatzen duelako.

Hortaz, azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

**EH Bildu talde politikoa**  
**Grupo político EH Bildu**

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - [www.donostia.ehbildu.eus](http://www.donostia.ehbildu.eus) -  
20003 Donostia

---

**KONTROL MOZIOA**

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari hiriko eremu publikoan jardueraren bat gauzatu nahi duten irabazi asmorik gabeko erakunde zein elkarteei eskatzen zaien fidantza edo abal eskaera kentzea baimena emateko baldintzetatik.

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Udal Jabari Publikoa erabiltzeagatik eskatuko dituen fidantza kopuruak eta hura eskatzeko irizpideak argitaratu ditzala Udalaren web orrialdean, dagokion atarian.

Donostian, 2022ko maiatzaren 20an

Olaia Duarte López  
**EH Bildu udal taldeko zinegotzia**